# maitiak galdegin zautan

**Trad./ Erramun Martikorena**

Kantu hau Erramun Martikorena baxenabartar kantariaren bidez ezagutu genuen 70eko hamarkadaren amaieran. Izugarri ezaguna egin zen eta geroztik euskal kantagintzako klasikoen artean koka genezake. 3/4ko erritmoan jotzen da geldo xamar, ia balts baten tankera hartzen duelarik.




Maitiak galdegin zautan premu nintzanez
premu, premu nintzela bainan
etxerik ez, etxerik ez!

Maitiak galdegin zautan moltsa banuenez
moltsa, moltsa banuela bainan
dirurik ez, dirurik ez!

Maitiak galdegin zautan lanean nakienez
lanean, lanean nakiela bainan
biderik ez, biderik ez!

Gaixoa hil behar dugu biek gosez
gosez, gosez ez naski bainan,
elgar maitez, elgar maitez!